



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP. KODEA 2022CONB0007
COD. EXP.

ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	HITZARMENAK
TITULARRA TITULAR	BIZKARGI MUSIKESKOLA
HELBIDEA DIRECCIÓN	AZKOITIA
NAN DNI	

AZKOITIKO UDALAREN ETA BIZKARGI MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDU DIRA

Alde batetik, Javier Zubizarreta Zubizarreta jauna, Azkoitiako Udaleko alkatea eta IFK P-2001800-H. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean.

Bestetik, Amaia Illarramendi Chapartegi anderea (NAN 72.434.014-E), IFK G-20085981 duen Bizkargi Musika eta eskolaren izenean eta haren ordezkaritzan.

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta Bizkargi Musika eta eskola eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioako aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, diru-laguntza arautzen duen hitzarmenean eta diru-laguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua diru-laguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako diru-laguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua arabera aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, diru-laguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta diru-laguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.- Bizkargi Musika eta Dantza eskola irabazteko asmorik gabeko elkarte da, 1983ko otsailaren 19an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean A.S.R.P.G.01447 zenbakiaren inskribatuta dago.

III.- Bizkargi Musika Eskolak urte askotan zehar Azkoitiko ume, gazte eta helduei musika, dantza eta kantua ikasteko aukera eman die, eta horrela hornitu ahal izan dira herriko musika talde,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

dantza talde eta abesbatzak; gainera herriko hainbat festa edo jaialditan parte hartzen du eta horretan jarraitzeko asmoa du.

IV.- Lankidetza hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Bizkargi musika eskolak, jendartean duen eragina, zenbat azkoitiarrek parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, ematen den zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.- Diru-laguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, 2021-2022 ikasturteko jarduerak finantzatzeko erabiliko da.

VI.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.20 artikulua xedatutakoaren arabera.

VII.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako diru-laguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENA.- Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2022. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza Bizkargi musika eskolari ematea eta emate horren baldintzak arautzea, Bizkargi musika eskolak aurkeztu duen programa aurrera eraman dezan: 2021-2022 ikasturteko kultura arloko jardura programa, hain zuzen ere. Ondorioz, aipatutako programa sortutako gastuei aurre egiteko bakarrik erabili daiteke diru-laguntza.

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, Bizkargi musika eskolari HIRUROGEITA LAU MILA EUROKO (64.000 euro) diru-laguntza emango dio programan aurreikusitako ekintzetarako, 2022ko udal aurrekontuko partida honetatik: 1.3100.481.333.50.01 diru-laguntza hau, ordainketa batean emango da, hitzarmena sinatu ostean. Horretarako, Bizkargi Musika eskolak dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:

- 2021/2022eko programa eta jardueren proiektua.
- 2021/2022eko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.
- Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturririk ez duen ziurtagiria.
- Aurkeztutako programaren arabera, Bizkargi musika eskolak honako ekintzak antolatu edo parte hartuko du :
 - 1.- San Jose Egoitzan ospatzen den Adinduen Astean parte hartuko du.
 - 2.- Bizkargi Musika eta Dantza eskolako ikasleen zenbait entzunaldi emango dituzte bai Elkargunen bai Kontzejupean, beraiek azaldu duten egitarauaren arabera.
 - 3.- Taldez Talde antolaketa/bitartekaritza lanak egingo dituzte.
 - 4.- Dantzari Txiki eta San Juan egunean parte hartuko du.
 - 5.- Ikasturte amaierako Jaialdia antolatuko du.
 - 6.- Udalak eskatuta, honek antolatu dezakeen beste edozein ekitalditan parte hartuko du, aurrez elkarrekin adostuta.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

HIRUGARRENA:

- Aurkeztu den programaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalaren Logoarekin batera.
- Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Kultura Departamentuari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa...).
- Iragarkiak, ohar eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehentasuna emango zaio euskarari.
- Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatiko diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

LAUGARRENA:

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.

4.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

4.1.1.- Ez dira onartuko gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legeko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.

Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak egiten badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina lege eskatu dakizkien baldintzak beteta, fakturaren ordean onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA) eta kontzeptua. Onuradunaren gastu guztiak kontuan hartuta, ezin izango dute gainditu diru-laguntzaren %25aren kopurua. Jaso izanaren agiri bakoitzaren zenbatekoa ezin da izan 800€ baino handiagoa eta zenbatekoa 300€tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Jaso izanaren agiria sinatu duenari Ogasunak erreklamazioen bat jarriko balioko, ezin izango zaio inolako erantzukizunik eratorri Azkoitiko Udalari; izan ere, Azkoitiko Udalak gastua egin eta ordaindu dela egiaztatu besterik ez du egingo, emandako diru-laguntza justifikatzeko bitarteko gisa.

4.1.2.- Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuen-tzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako proiektuan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helbueraren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.

4.1.3.- Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen beharko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien %10 baino handiagoa.

2022ko uztailaren 31an amaituko da diru-laguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, diru-laguntza emateko helburua bete duela zurrizko eta jasotako diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2023ko otsailaren 28an amaituko da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Justifikatzeko modua KONTU ARRUNTAREN bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- Justifikazio-kontuaren adierazpena, Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera, diruzainak sinatua.
- Jarduera memoria bat, diru-laguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituen.
- Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatua, Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera, diruzainak sinatua.
- Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan froga balioa duten beste agiri original guztiak, beraien kopiekin aurkeztu beharko dira eta Kultura Departamentuak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezake berekin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

BOSGARRENA: Diru-laguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko diru-laguntza zurituta izan behar du. Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatu ezker, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

SEIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin, eta Bizkargi musika eskolaren gainontzeko sarrerekin, beti ere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egora hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio Bizkargi Musika eskolari.

ZAZPIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko Bizkargi Musika eskolan lanean ari diren langileez eta Bizkargi Musika eskola izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du Bizkargi Musika eskolak.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebehar guztiak onartzen dituela.

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalari:

- Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeak aukeraren inguruan.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMARGARRENA: Administrazioko auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarteak diru-laguntza kontura jasotakoa itzultzera behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Azkoitiko Alkatea
Javier Zubizarreta Zubizarreta



Bizkargi Musika Eskolako Lehendakaria
Amaia Illarramendi Chapartegui

2022 UZT. 07



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU167a509b-6392-4daa-b04a-f2c08d6cfcec**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>